

KONTU KONTARI**EUSKAL INAUTERIA
GURE SINESMEN ZAHARRETATIK IKUSITA**

Jai bat baldin bada sustraitua munduan hauxe da, inauteria, munduko bazter guztietan zabaldurik baitago. Bere errorik sakenak antzinako denboretan gordetzen ditu, eta garai zahar haien oihartzuna ekartzen digu urtero, sentimendu antzestral¹ eta totemikoez jantzirik. Horixe baita azken finean inauteria, gure arbaso zaharren sinismenetara urteroko itzulera. Gure Euskal Herri zahar honetan inauteriak indar eta kolore handia hartzen ditu, eta garai bateko magiaren sua piztuta irauarazten ditu. Inauteria jai solstiziala da, neguko solstizioaren jai, eta solstizioaren inguruko errito bezala ulertu beharra daukagu.

1. Euskal sinesmen zaharren zenbait ezaugarri

a.- Oso kontuan hartu behar dugu gure sinesmen zaharretan osotasuna, dena, batasun bakar batez ikusten zutela: Ortzi. Monoteista zen, nire uste apalez, baina osotasun horren barruan bazeuden bestelako izakiak eta indarrak.

b.- Euskal sinesmen zaharra manikeista² zen, aurkakoen etengabeko borrokan sinesten baitzuten. Den guztia da bere aurkako zuzena duelako, eta ideia honen sinbolorik adierazgarriena esbastika dugu (gure artean lauburu deitzen duguna),

¹ Antzestral: Antzinakoa, arbaso zaharrekin lotutakoa.

² Manikeista: Kontrako bi muturretan sinisten duena.

bere bi mugimenduen aurkakotasunean indar baikor eta ezkorak aurkitu egiten baitira. Euskaldunok beti izan gara arras manikeoak, eta ez bakarrik gure jainko-jainkosen aurkako dualismoetan (Eki/Ilargi, Mari/Maddu, Atarrabi/Mikelats...) baita bizitzaren, izatearen, agian hobeto esana, alderdi guztietan ere. (Euskara/erdara, euskaldunak/erdaldunak, Euskal Herria/Erdal Herriak...) Edo gutarrak edo bestelakoak, azken finean.

c.- Euskal panteismoa ere oso kontuan hartzekoa da, dena Ortziren zati dela sinesten baitzen. Gure arbaso zaharren ustez, den-dena jainkoturik zegoen, ezagutzen dugun guztia dibinitatearen zati baita.

d.- Eternala. Beraien ustez, dena betidanik eta betiko baita, hori bai etengabeko mugimenduan eta transformazioan. Hasierarik eta amaierarik gabeko gurpil ibiltariaz sinesten zuten, aho barruan isatsa sartzen zuen sugaeren mitoaz.

e.- Animismoa beste ezaugarri handia zen, izadiaren izaki ezberdinetan pertsonifikatzen baitzituzten ulertzen ez zituzten era guztietako fenomenoak edo gertakizunak. (Sugaar = tximista, Ostots = trumoia, Ilargi = heriotza, Eki = bizitza, Gaueko = ezezaguna, Laino = gaitza, Eate = haizea...)

f.- Animismoarekin estu loturik naturalismoa. Bai gure asaba zaharrak animistak ziren naturan bilatzen baitzituzten euren eredu eta jarrerak. Animalien presentzia zabala, berriz, oso loturik dago naturalismoarekin (Zaldiko edo Zamalzain, Zezen Suzko, Zezengorri, Hartza, Sugaar, Mari bele bihurturik...)

g.- Mundu magikoaren presentzia. Ez gara bakarrik harriak, landareak, animaliak eta gizakiak mundu honetan, ez, badira ere gizakiaren gainean dauden bestelako izaki magikoak. Esate baterako: lamiak, basajaunak, galtzagarriak, sorginak...

2. Neguko solstizioa eta udaberriaren etorrera

Gogoratu beharra daukagu zer-nolako garrantzia duten kultural eta herri guztien errito eta sinesmenetan solstizioek eta

ekinozioek, hauen inguruan gauzatu baitituzte ez bakarrik beren tradizioak, eta baita aunitzetan egutegia ere, baizik eta urte osoan izateko eta bizitzeko beharrezko filosofia edo jokaera ere.

Udako solstizioa oso uztarturik dago biziarekin, berotasunarekin, eguzkiarekin, eta Neguko solstizioa bere aurakakoa izanik, heriotzarekin, hotzarekin eta ilargiarekin ere. Manikeismo hutsa. Neguko solstizioa nahitaez pasatu beharreko denboraldi luze iluna da. Ekiren erresumara iristeko iragan beharreko Ilargiren menpeko egoera. Negua joaten da pasatzen eta pixkanaka-pixkanaka eguzkiaren indarra gero eta handiagoa egiten da. Udaberriaren etorrera da, udaberriko ekinozioaren etorrera.

Ilargi ahultzen joaten da eta Eki, berriz, indartzen. Ekik gero eta indar handiagoa du eta honek ama-lurraren esnatzea dakar, biziaren berrindartzea, etengabeko gurpil ibiltariaren alde baikorra. Eta hauxe da inauterian urtero errepikatzen zaiguna. Hau dela eta, euskal inauteria leku askotan urtarrilean hasten da eta martxoan-apirilean bukatzen. Erritual luzea da neguko solstizioa eta udaberriko ekinozioa lotzen dituen. Neguarekin etortzen diren indar eta espiritu gaiztoak edo ezkorrak izutu behar dira, udaberriarekin etorriko diren indar baikorrei segida zabala eman ahal izateko. Eta hauxe da herri guztietako inauterietan, modu batez edo besteaz, egiten dena. Oroit dezagun adibide moduan, Ituren eta Zubietako joaldunak euren joare handiez edota eskuan daramaten zaldi-ilezko erratz horiek asintzen lortu nahi dutena: lurra esnatu eta espiritu gaiztoak euren herrietatik uxatu.

3. Euskal inauteriaren inguruko zenbait gora-behera

Inauteri edo ihauteri hitzari buruz gauza asko esan diren arren, badirudi Julio Caro Barojak emandako interpretazioa dela zuzenena. Aipatutako antropologoaren irudikoz, hitz horren barruan hiru osagai edo elementu daude: IHO/IÑO edo IHAU/INAU aldaera, -TE atzizkia, eta azkenez, beste bigarren atzizki berantiarra bat: -ERI. Aipaturiko lehen elementuak

karnabal esan nahiko luke. Lehen atzizkia (-te) garaia edo tenorea adierazteko erabiltzen da usu (elurte, haizete, eurite...) Eta bigarren atzizkiari dagokionez, esan dezagun oso erabilia dela gaitza, bizioa, edota nolakotasun txarra adierazteko (biri-keria, nafarrerria, lirdingeria...)

Bigarren atzizkia ezarri gabe ere, erabili egiten da, bai Nafarroan eta baita Iparraldeko lurraldeetan ere, karnabala adierazteko. (iñotea, ihotea, iñautea, ihautea...) Badaude bestalde, lehen hitz horretatik eratorritako beste hitzak, normalean, burla, iraina edota kirtenkeriarekin loturik izaten direnak. Julio Caro Barojaren iritziz, inauteria sustraitua dago erokerietan edo eguneroko bizimodutik urrun dauden jarreretan. Hori dela eta, osagai hori duten hitzetan ezaugarri hori nabarmen gelditzen da. Ikus dezagun. INAKIN (iraina), INOZO (memeloa, lerdoa, ergela...), INULA, INUALA (kirtena, astapitua, tontolapikoa...)

Azter eta aldera ditzagun orain lehenengo atalean ikusitako euskal sinesmen zaharren ezaugarriekin euskal inauterian azaltzen diren zenbait pertsonaia eta osagai:

a.- Inauteri guztietan azaltzen dira pertsonaia ugariak, baina aunitzetan, ez beti, azaltzen da pertsonaia bat inauteri osoaren ardatza izaten dena (Miel Otxin Lantzekoan, Markitos Zalduendokoan, Trapujale Lezokoan...) Hauxe oso lotua dago euskaldunon monoteismo bereziarekin, aniztasunean finkatutako monoteismoarekin edo osotasunarekin, alegia.

b.- Manikeismoaren etengabeko presentzia. Alde ona eta alde txarra. Espiritu onak eta espiritu gaiztoak. Batekoak edo bestelakoak. Adierazgarriena Zuberoako maskarada dugu, bi aurkako muturretan banaturik: gorriak eta beltzak. Ikus dezagun honetaz Juan Carlos Etxegoien *Xamar* idazleak berea den *Orhipean* izeneko liburu gogoangarrian esaten diguna: *“Maskaradan bi pertsonaia mota daude: gorriak eta beltzak. Gorriak jende zintzoa, ona da; bere gain daude dantzaririk ikusgarriak. Gorrien artean Txerrero, Gathüzain, Kantiniarsa, Zamalzain, Entseinaria, (guzti hauek aintzindariak dira, dantzari*

nagusiak), Herriko Jauna, Herriko Anderea, Laboraria, Laborarisa, Marixalak eta Kükülleroak aurkitzen ditugu. Beltzak gorrien aurkakoak dira: gaiztoak, abalkegabeak, zikinak, ebasleak, gezurtiak, andrekariak, ardozaleak... xiberotar baten hitzetan: BELTZERIA TZAR HORI ÜRDAlKEIA BAT DÜZÜ, BASA DÜZÜ, BASA! Beltzen multzoan Kherestüak, xorrotxak –nagusi eta mithil–, bühameak, kauterak –Kabana kauter nagusia, Pupu eta Pitxu– bedezia eta bedezi lagünak daude. Gorrien egin-kizuna dantzak diren bezala, beltzena jokoak egitea da.”

Eta hauxe dena errepikatzen da inauteri guztietan, bi aldeetako pertsonaiak azaltzen baitira. Zenbait tokitan pertsonaia ezko-
rrek indar handia hartzen dute: Altsasuko momotxorroak, Unanuako mamuxarroak, Lantzeko txantxoak, Lezoko zirikoak...

c.- Eternitatearen kontzeptua beti azaltzen da euskal inauterian. Hasi egiten da gero bukatzeko. Baina hasiera eta amaiera gurpil batean lotzen dira, etengabeko gurpil ibiltaria gogora ekarri nahian. Bukatzean beti pertsonaietako bat hil egiten dute, Miel Otxin fusilatu egiten dute, Trapujaleri lepoa mozten diote igitai batez, hirietako inauteri urbanoetan, Tolosan, Donostian... Sardinari su ematen diote. Baina heriotza honek berekin darama hurrengo urteko itzulera, su garbitzaileak ez du deusezten, berritzen baizik. Zuberoako maskaradetan gauza bera gertatzen da. Pitxu hiltzen dute denak bere gainean jarrita, itota eta zapalduta nolabait esateko, baina azkenean bedeziak³ (sendagileak) berpiztu egingo du. Naturaren urteroko berpiztea sinbolizatzen du, neguko solstizioan lotan geratzen dena eta udaberriko ekinozioan berriro pitzen zaiguna.

d.- Animismoa eta naturalismoa ere garbi islatzen dira, animalia eta izaki magikoen itxura hartzen duten pertsonaietan. Aipa ditzagun inauteri askotan azaltzen den HARTZA esanguratsua, (ez ahantzi zuberotarren ustez, hartza dela euskaldunon arbasorik zaharrena), ZALDIKO nafarra edota ZAMALZAIN zu-

³ Bedezi: Sendagilea zubereraz.

berotarra, Bizkaia aldeko lamiak, azeriak, basurdeak, astoak... eta abar. Arrunt garrantzitsua da pertsonaia hauen inguruan gauzatzen diren erritualak: ferratzea, zirikatzea, odolez zikitzea, barrenak ateratzea... eta abar. Hauetako zenbait sexuaren inguruko errito inizatikoetan ikus daitezke, Zamalzainen zikiratzean, esate baterako.

Badirudi, bestalde, inauteria oso loturik dagoela lizunkeriekin eta haragi (txerriak gehienetan) jatearekin. Aunitzen ustetan, inauteririk arkaikoena oso lotua dago elementu orgiastikoekin.

4. Kristau erlijioaren eragina

Esan dugu inauteria solstiziala dela, paganoa, arkaikoa, jentila Euskal Herrian, eta gure inauteriarri dagokionez, aipatu ditugu garai bateko sinesmen zaharrekin lotzen dituen ezaugarriak edo bereizgarriak. Bai horrelakoxea da euskal inauteria eta begi bistan geratzen da, denon agerian. Baina paganismoa itzali zen aspaldi, euskal jentilak gorde ziren Kixmiren erlijioaren etorrerarekin eta ezartzearekin batera, eta hala eta guztiz ere, inauteriak gaurko egunetaraino iraun du. Nola daiteke izan?

Kristau erlijioak bestelako morala, bestelako ikuspegia ekarri zuen, baina Garizuma bat aurrera eramateko behar zuen atsedean eta askatasunezko denboraldi labur bat aurretik, egoera estutasunez ito ez zedin. Hau dela eta, inauteria toleratu egin zuen, karnabala Garizumaren aurreko beharrezko denboraldi moduan. Hortik datorkio Gipuzkoako Arrasate herrian inauteriarri ematen dioten izena, aratustea, haragia uztea alegia. Garizuman baraua eta abstinentzia aldarrikatzen zituzten, eta inauteria litzateke haragia uzteko denboraldiaren aurrekoa.

Baina toleratu egin bazuten ere, zehazki arautu behar izan zuten, denbora zehatz baten barruan sartuz. Hori dela eta, inauteria leku askotan Quincuagesimaren⁴ aurreko igandearen

⁴ Quincuagesima: Bepizkunde Pazkoren aurretiko berrogeita hamargarren eguna. Garizumaren aurreko igandea.

inguruko egunetan ospatzen dute. Hau da, aurreko ostegunetik hasita, ondorengo astearte arte. Gero, Hausterre etorriko da inauterian egindako bekatuak barkatzeko eta Garizuma arima bekataria arazteko. Ziklo bat bukatuko da besteari hasiera emateko. Eta hemen lotzen dira paganismoan aldarrikatzen zen etengabeko gurgilarekin, zikloak urtero errepikatu egingo baitira.

Inauteriak ekarri ditu gaurko egunetaraino jentilen mezu solstiziala, etengabeko gurgilaren oroimena eta aurkakoen borroka sortzailearen oihartzuna, baina baita kristau erlijioaren mezu eta janzkera ugari ere. Eta azken honek iraunarazi du azken mendeetan zehar, eta bizirik ekarri digu XXI. mendeko gaurko egunetara.

5. Amaiera gisa

Buka dezadan lan hau inauteriaren inguruko beste zenbait gauza oroituz. Inauteria paganoa da, baina baita kristaua ere. Inauterian jendeari bere arazoak ahaztu egiten zaizkio denboraldi batez, eta horixe da inauteriak neurri handi batean bilatzen duena. Urte osoan zehar gaizki ikusia dagoena, edota zapaldu egiten duguna, egun horietan kaleratzen dugu inolako lotsarik eta erreparorik gabe. Eta horretan izugarri lagundu egiten du mozorratzeko ohiturak, modu batean (nekazal inauteriko jantziak) edo bestean (hiri inauterietako mozorroak eta disfrazak). Disfrazak, dantzak, kantuek, jateak et edateak osatzen dute inauteriaren izaera. Eta elementu horien guztien gaintetik, badago beste elementu bat, garrantzitsuena agian: askatasuna; Julio Caro Barojak esaten zuen moduan, askatasun eza eta inauteria nekez uztartzen baitira.

Joseba Aurkenerena Barandiaran